

HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUA  
BI KALE IKUSKATZAILE KONTRATATZEKO HAUTAKETA PROZESUA

**MEREZIMENDUEN BALORAZIOAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK**

**BEHIN-BEHINEKO AZKEN EMAITZAK**

Hautaketa prozesua arautzen duen deialdiaren 8.2 oinarriaren arabera, Epaimahaiak oposizio fasea gainditu duten hautagaien merezimenduak baloratu ditu.

Horrekin batera, hautaketa prozesua arautzen duen deialdiaren 9. oinarriaren arabera, oposizio faseko eta merezimenduen lehiaketako emaitzak batu ondoren, Epaimahaiak behin-behineko azken emaitzak onartu ditu.

Horrenbestez, iragarki honen bidez, argitara ematen ditugu merezimenduen balorazioaren behin-behineko emaitzak eta behin-behineko azken emaitzak.

Hautagaiek 3 laneguneko epea dute behin-behineko emaitza horien aurkako erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak aurkezteko epea amaituko da apirilaren 8an. Erreklamazioak idatziz aurkeztu behar dira Udal Elkarteko sarrera erregistroan.

Erreklamaziorik ez baldin bada, behin-behineko emaitzak behin betiko bilakatuko dira besterik gabe eta, ondorioz, Epaimahaiak hautaketa-prozesua amaitutzat eman eta Udal Elkarteko Lehendakartzari proposatuko dio, batetik, puntu gehien eskuratu duten lehen bi hautagaiak kontratatze eta, bestetik, hautaketa-prozesua gainditu duten gainerako hautagaiekin lan-poltsa eratzeko.

Erreklamaziorik baldin bada, aztertu, dagokiona ebatzi eta behin betiko emaitzak onartu eta argitaratuko ditu Epaimahaiak.

Epaimahaia  
Urola Kostako Udal Elkarte

2019-04-03

**MEREZIMENDUEN BALORAZIOAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK**

	Lan-esperientzia					Prestakuntza							LEHIAKETA
	A		B				1		2		3HE		
<b>NAN</b>	Geh 10	0,5	Geh 5	0,25			Geh 2		Geh 2		Geh 1		
	H	P	H	P	<b>GUZTIRA</b>	I	P	I	P	I	P	<b>GUZTIRA</b>	<b>GUZTIRA</b>
***2431**	0,00	0,00	0,00	0,00	<b>0,00</b>	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
***9388**	0,00	0,00	0,00	0,00	<b>0,00</b>	2,00	2,00	1,00	0,50	1,00	1,00	<b>3,50</b>	<b>3,50</b>
***3821**	0,00	0,00	20,00	5,00	<b>5,00</b>	2,00	2,00	1,00	0,50	1,00	1,00	<b>3,50</b>	<b>8,50</b>
***5851**	0,00	0,00	0,00	0,00	<b>0,00</b>	2,00	2,00	0,00	0,00	1,00	1,00	<b>3,00</b>	<b>3,00</b>
***6858**	0,00	0,00	0,00	0,00	<b>0,00</b>	0,00	0,00	1,00	0,50	1,00	1,00	<b>1,50</b>	<b>1,50</b>
***4492**	0,00	0,00	0,00	0,00	<b>0,00</b>	1,00	1,00	0,00	0,00	1,00	1,00	<b>2,00</b>	<b>2,00</b>
***4414**	0,00	0,00	0,00	0,00	<b>0,00</b>	0,00	0,00	2,00	1,00	1,00	1,00	<b>2,00</b>	<b>2,00</b>
***5232**	0,00	0,00	8,00	2,00	<b>2,00</b>	1,00	1,00	1,00	0,50	1,00	1,00	<b>2,50</b>	<b>4,50</b>

**Oharrak**

**Taula ulertzeko argibideak**

Lan-esperientzia baloratzeko atalean H hizkiaren zutabearen adierazi da irizpide zehatz horretan zenbat hilabete baloratu diren (hautagai batek oinarrietan ezarritako muga gainditu badu, muga horri dagokion hilabete kopurua adierazi da). Lan-esperientziako azpiatal bakoitzaren puntu balioa (P) atera da hilabete kopurua hileko balioarekin biderkatuta.

Prestakuntza baloratzeko atalean I hizkiaren zutabearen adierazi da irizpide horretan zenbat unitate baloratu diren (ikastaroak). Prestakuntzako azpiatal bakoitzaren puntu balioa (P) atera da unitate kopurua bakoitzaren balio-unitatearekin biderkatuta (balio-unitate ezberdina ikastaroaren ordu kopuruaren edo hizkuntza kopuruaren arabera).

**Oharra A eta B motako lan-esperientzia**

Hautaketa prozesua arautzen duen deialdiaren 8.2 oinarriak (Merezimenduen lehiaketa) ezartzen du bi lan-esperientzia mota baloratuko direla:

- a) Lan-esperientzia, deialdiko 2. oinarrian zehaztutako eginkizunekin lotura zuzena duten lanak burutzen.
- b) Lan-esperientzia, deialdiko 2. oinarrian zehaztutako eginkizun eta kompetentziekin zeharkako lotura duten lanak burutzen.

Halaber, oinarri horrek berak ezartzen du lanpostu batek aurreko irizpide horiekiko zer-nolako antza duen Epaimahaiak aztertu eta erabakiko duela, eta egoki irizitako zuzenketa faktoreak aplikatuko dituela.

Horren haritik, Epaimahaiak A eta B esperientzia bereizteko (lotura zuzena edo zeharkako lotura) irizpide hau erabiltzea erabaki du:

- A lan esperientzia: mota horretako esperientzia dela iritzi zaio egiaztatutako lan esperientziak 2. oinarrian zehaztutako eginkizun guztiak edo ia guztiak burutu baldin baditu.
- B lan esperientzia: mota horretako esperientzia dela iritzi zaio egiaztatutako lan esperientziak hondakinekin kudeaketarekin zerikusia baldin badu eta 2. oinarrian zehaztutako eginkizun batzuk burutu baldin baditu.

### BEHIN-BEHINEKO AZKEN EMAITZAK

NAN 4	1. ariketa	2. ariketa	Merituak	GUZTIRA
***3821**	15,20	8,33	8,50	32,03
***5232**	12,72	10,83	4,50	28,05
***9388**	15,90	7,50	3,50	26,90
***6858**	13,97	10,00	1,50	25,47
***4414**	13,31	10,00	2,00	25,31
***5851**	14,08	7,50	3,00	24,58
***2431**	16,19	7,50	0,00	23,69
***4492**	13,34	7,50	2,00	22,84